

## ESKOLA ORIENTABIDE ZERBITZUAREN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEN ARTEAN INFORMAZIOA TRUKATZEKO PROTOKOLOA

### 1.- Sarrera

Protokolo honen helburua hauxe da: eskola orientabide zerbitzuak eta berarekin harremanetan dauden erakundeek ikasleei buruzko informazioa trukatzeko orduan jarraitu behar duten prozedura ezartzea, hezkuntza arloko erantzunik onena emateko eta ikasleei buruzko informazioa segurtasunez eta arduraz trukatzeko, datuak babesteari buruzko indarreko araudia betetzen dela bermatuz.

Ikastetxeetan curriculum edukiak ematen dira, baina, horretaz gain, ikasleen garapen osoa lortzeko behar diren egoerak gertatzen dira; hori dela eta, horren gaineko begiradak osokoa izan behar du. Ikaskuntza egoerak ikasleei eragiten dieten faktore guztiak egonkorak eta egokiak direnean sortzen dira.

Ikasleen behar guztiei erantzuteko, informazioa beste erakunde, eragile, antolakunde eta abarrekin trukatzeko mekanismo seguruak aurkitu behar dira.

Informazio trukaketa horiek hezkuntza arloko erantzuna hobetzea eta ikasleei ikasteko eta ongi egoteko ingurune egokiagoa eskaintzea dute helburu.

Alabaina, hori guztia arau esparru jakin batean eman behar da, eta ahalik eta segurtasun handienaz. Hori dela eta, protokolo hau ematen da, informazioa segurtasun berme guztiekin eta adingabe eta familiak errespetatuz ematea ahalbidetzeko.

Arau esparrua heziketa arautzen duen araudi zabalak osatzen du.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez, *"Ikastetxeek beren hezkuntza funtzioa betetzeko beharrezkoak diren ikasleen datu pertsonalak biltzen ahalko dituzte"*.

Halaber, *"Ikasleen datuen tratamenduan, datu horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko duten arau teknikoak eta antolamenduzkoak (...)" aplikatuko direla xedatzen da.*

Bestalde, adingabe orok bere interes gorena dagozkion ekintza eta erabaki guztietan kontuan izateko eta nagusitzat hartzeko eskubidea du, esparru publikoan zein pribatuan, eta datu pertsonalak hezkuntza arloan trukatzeko betebeharrak eskubide horren ondorio dira.

Haur eta nerabeei arreta eta babesaren eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen 4.2 artikulua honako hau xedatzen du: *“Nafarroako Administrazio Publikoek printzipio hauek beteko dituzte adingabeekin, haien familiekin eta adingabeen arretaren edo babesaren arloan jarduten duten erakunde publiko edo pribatuekin dituzten harremanetan:*

*a) Sarean lan egitea, ingurune komunitariotik, adingabeen arretaren eta haien eskubideen defentsan eta sustapenean esku hartzen duten administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean.*

*Ukitutako toki eta foru erakundeek eta departamentuek elkarri emanen diote beren jarduketan helburu, plan, metodologia eta jarraipenaren berri; horretarako, eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak beharrezkoa den prestakuntza bultzatuko du”.*

Era berean, Hezkuntza Departamentuak indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei osoko arreta, hau da, babes neurriak, laguntza, harrera eta leheneratzeko aukera eskaintzeko betebeharra du; horretarako, beste erakunde batzuekin batera jardun behar du, eta horrek datu pertsonalak ematea eskatzen du, haurrak eta nerabeak indarkeriatik begiratzeko babes integralari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera.

Araua argia da, bai Hezkuntza Departamentuak, bai beste edozeinek, adingabeen osoko babesaren bermatzeko duen betebeharrari dagokionez.

Hain zuzen ere, lege horren 6. artikuluan, honako betebeharrak ezartzen du: *“Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lankidetzan aritu beharko dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141. artikuluan ezarritako moduan, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, goiz detektatzeko, babesteko eta erreparatzeko arloetan eraginkortasunez jardun ahal izateko”.* Gauza bera xedatzen du 8. artikulua lankidetzaren publiko-pribatuari dagokionez eta artikuluetan aipatzen diren gainerako neurriei dagokienez.

Adingabeen datu pertsonalak babesteari dagokionez, Lege Organiko horrek legekotzat jotzen du horrelako datuen tratamendua babesgabezia- eta arrisku-egoeretan. Are gehiago, inguruabar horiek eta, beraz, adingabea babestea bermatzeko beharrezko datuak komunikatzeko eginbeharra ezartzen du (besteak beste, 15. eta 16. artikuluetan).

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duen 69/2023 Foru Aginduak, abuztuaren 21ekoak, Hezkuntzako kontseilariarenak, honako hau jasotzen du 5. artikulua 2. apartatuan:

*Ikastetxetik kanpoko gizarte, osasun eta komunitate eragileekiko koordinazioa hezkuntza eginkizunen jardueratik garatuko da,*

*indarreko arautegi eta protokoloetan ezarritako informazio eta/edo lankidetzak bideak atxikiz. Horretarako, aintzat hartuko da ikastetxearen erreferentziako gizarte eta komunitate esparrutik sareko lanerako ezarritako metodologia.*

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan hezkuntza- eta lanbide-orientazioa arautzen dituen 66/2010 Foru Dekretuak, urriaren 29koak, honako hau xedatzen du, hezkuntza orientazioari dagokionez:

*"Ikastetxe bakoitzeko testuinguruari egokitzen zaio, haren identitatearen eta gizarte inguruaren arabera, aholkularitza psikopedagogikoa emanaz irakaslaneko gobernu eta koordinazio organoei eta hezkuntza komunitateko beste eragile batzuei eta beste zerbitzu eta erakunde batzuekin elkarlanean arituz".*

Hauek dira, besteak beste, orientazioari lotutako eginkizunik aipagarrienak:

*"Beste instantzia batzuekin elkarlanean aritzea ikasleen garapen pertsonala eta soziala bultzatzen duten jarduketetan" eta "Laguntza ematea elkarlan egokia izan dadin hezkuntza komunitateko kideen artean, baita eskola elkarlearen eta ingurune sozialaren artean ere".*

47/2010 Foru Dekretuan, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbarrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoan, laugarren xedapen gehigarriak xedatzen du:

*"Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko*

*15/2005 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoa kontuan harturik, irakasleek (...) oinarritzko gizarte zerbitzuei jakinarazi behar dizkiete, ikastetxeko zuzendaritzaren edo orientazio departamentuaren bidez, adingabe bat arrisku egoeran edo babesik gabe gelditzeko sor litezkeen egoerak (...)"*

Era berean, sareko bileretarako lan prozedura dela eta hezkuntza orientatzaileei helarazi zaien dokumentuan adierazitakoa osatu nahi du Protokolo honek.

Adingabeen osoko babesa bermatzeko beharra eta beren datu pertsonalak babestearekin duen zerikusia ikusita, beharrezkotzat jotzen da protokolo bat idaztea, hezkuntza arloko edozein langilerentzat baliagarria izan arren batez ere ikastetxe publikoetako orientabide zerbitzuei zuzendutakoa. Izan ere, protokolo honek barnean hartzen ditu: arau esparrua, partekatze datuen definizioa, datuak lagatzea legitimatzen duen oinarria, informazioa trukatzeko mekanismoak, datuen konfidentziasuna eta segurtasuna bermatzeko betebeharra, protokolo honen ebaluazioa eta berrikuspena, gatazkak konpontzeko modua, eta protokoloa onartu eta zabaltzeko neurriak.

Bestalde, aipatu behar da protokolo honen xedeak ez duela gainditzen Nafarroako Gobernuaren beste departamentuen eskumena.

## 2.- Arau esparrua

Protokoloak arlo honetan indarrean dagoen araudia bete beharko du:

Europa mailan:

- **2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena**, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena. (DBEO)

Estatu mailan:

- **3/2018 Lege Organikoa**, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (DPBEDBLO)
- **8/2021 Lege Organikoa**, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoa.
- **2/2006 Lege Organikoa**, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. (HLO).
- **1/1996 Lege Organikoa**, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzekoa.

Autonomia erkidegoaren mailan:

- **12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.**
- **66/2010 Foru Dekretua**, urriaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan hezkuntza eta lanbide orientazioa arautzen dituena.
- **47/2010 Foru Dekretua**, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.
- **69/2023 Foru Agindua**, abuztuaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena.

## 3.- Partekatzekeo datuen definizioa:

Partekatzekeo datuak mugatuak izanen dira, hau da, ikasleari laguntzeko eta esku hartzeko behar-beharrezko datuak baino ez dira izanen. Behar izanez gero, honako hauek izan daitezke:

- Ikaslea identifikatzeko datuak (izen-abizenak) eta harremanetarako datuak, behar-beharrezkoa denean izan ezik.

- Familiaren eta ikastetxearen artean ezartzen diren harremanen egoerari buruzko informazioa. Gizarte arloari dagokionez, ikasleak eskola esparruan ikaskideekin eta irakasleekin ezartzen dituen harremanei buruzko informazioa izan daiteke.
- Ikasketa datu garrantzitsuak, ikaslearen heziketa beharrianen deskribapena eta ikasteko modua.
- Hala badagokio, ikaslearen kasuan ezarritako diziiplina neurriak.
- Eskola absentismoari buruzko informazioa.
- Hezkuntza helburua betetzeko eta adingabea babesteko beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio, datuen minimizazioari buruzko printzipioa betez.

#### **4.- Datuak lagatzea legitimatzen duen oinarria.**

4.1. Ikasleen datu pertsonalak ikastetxeetan hezkuntza- eta orientazio-eginkizuna betetzean erabiltzea maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak legitimatzen du, besteak beste, eta batez ere, hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ("*Ikasleen datu pertsonalak*").

Bestalde, datuak ikaslearen ongizatea bermatzea helburu duten erakundeen arteko lankidetzaren esparruan lagatzea legitimatzen duen oinarri nagusia honako kasu hauei dago lotuta: lege mailako arau batek tratamendua baimentzen duenean edota arduraduna tratamendua egitera behartzen duenean (DBEOren 6. artikulua, c), d) eta e) letrak). DBEOren 6. artikuluko letrak honako kasu hauek aipatzen dituzte:

c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege eginbeharra betetzeko.

d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi interesak babesteko.

e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Bai urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, adingabearen babes juridikoari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen, bai Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, baita Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legea ere, **arrisku-edo babesgabezia-egoeretan dauden**

**ikasleen datu pertsonalak** lagatzea legitimatzen duen oinarria dira. Arau horiek xedatzen dute, hain zuzen, adingabearen interes gorena aintzat hartu behar dela; beraz, babesgabetasun egoeretan, ikasleari laguntzea izanen litzateke nagusi, eta ez bere datu pertsonalak lagatzeko baimena eskuratu beharra.

Hainbat egoera:

- Datuak Segurtasun Indar eta Kidegoei nahitaez jakinarazi behar zaizkie, betiere beharrezkoak badira **segurtasun publikorako benetako arrisku bat prebenitzeko edo arau hauste penalak erreprimitzeko**. Edonola ere, Segurtasun Indar eta Kidegoek beren eskumenak betetzean egiten duten eskaerak konkrituak, berariazkoak eta arrazoituak izan behar dute, datu komunikazio bereizi gabeak saihesteko. Datuak Segurtasun Indar eta Kidegoei jakinarazteko baldintzak betetzen diren arren, komeni da ikastetxeak datuak jakinarazi izana dokumentatzea.
- Datuak Gizarte Zerbitzuei jakinarazten ahal zaizkie, betiere **Gizarte Zerbitzuen eskumena diren arrisku- edo babesgabetasun-egoerak** detektatzeko edo horrelakoetan esku hartzeko bada. Adingabearen interes gorenak Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoan jasotakoak, babestuko du komunikazioa.
- **Adingabe bat babesik gabe egon** daitekeela jakinez gero –tratu txarrak, babesgabetasun arriskua edo babesgabetasuna–, agintariei edo hurbilen dauden agenteei eman behar zaie horren berri.
- Adingabe bat maiz eta justifikaziorik gabe eskola aldiak ikastetxean **agertzen ez dela (absentismoa)** jakinez gero, horren berri eman beharko zaio agintaritzak eskudunari, baita ikaslea ikastetxera etortzera anima dezaketen erakundeei ere.
- Ikaslearen datuak bere baimenik gabe ematen ahal zaizkie osasun zentroei, arrazoa **osasun prebentzioa edo diagnostikoa denean, osasun laguntza edo tratamendu medikoak eman behar direnean edo osasun zerbitzuak kudeatu behar direnean**, betiere zeregin horiek sekretu profesionala gorde behar duten osasun-langileek edo betebeharrak bera duten profesionalak betetzen badituzte. Adibidez, istripua izan duen, ondoezik sentitu den edo janariarekin intoxikatu den ikasle bati osasun laguntza eman behar zaionean.

Oro har, familiei jakinarazi beharko zaie datu pertsonalak komunikatu direla, eta telefonoz, idatziz edo aurrez aurre egiten ahalko da, DBEOren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera. Arrisku egoeretan edo babesgabetasun egoeretan edota ikaslea babestea helburu duten ekintzetan, familiei jakinarazteko betebeharrak hori aztertu beharko da.

4.2. Era berean, ikastetxeek beste ikastetxe, antolakunde, erakunde eta administrazio batzuetatik, baita erakunde pribatuetatik ere, jasotzen dituzte ikasleen datu pertsonalak emateko eskaerak, babesgabeziarik, indarkeriarik edo arrisku egoerarik ez bada ere.

Pertsona horien datu pertsonalak lagatzeko edo jakinarazteko, interesdunen edo, 14 urtetik beherakoak badira, tutoreen baimen argia eta berariazkoa lortu beharko da (DBEOren 6.1.a) artikulua).

Adibidez, datuak toki erakundeei lagatzea, ikastetxeetan inklusioa, ekitatea, bake soziala eta berdintasuna bezalako balioak bultzatzeko langileak hartu izanaren ondorioz. Babesik eza edo babesgabetasun egoera bat dagoenean izan ezik, interesdunari datuak lagatzeko baimena eskatuko zaio. Eredua Protokolo honen I. ERANSKINEAN dago.

## **5.- Informazioa trukatzeko mekanismoak, Sareko Bilerak**

Gizarte Zerbitzuen Haur eta Familientzako Programak sareko bilerak egiteko deiak egiten ditu, eguna, ordua, tokia eta landuko diren kasuekin zerikusia duten profesionalak adierazita. Honako hauek izan daitezke parte-hartzaile:

- Oinarrizko ikastetxeko gizarte langilea.
- Pediatra.
- Erizaintza pediatrikoko langileak.
- Erreferentziazko ikastetxeko orientatzailea.
- Osasun mentaleko zerbitzuaren ordezkaria, beharrezkoa izanez gero.

Kasuetan erreferente diren pertsonak soilik hartuko dute parte bileretan.

Bilera horietan, kalteberatasun handiko egoeran dauden ikasleen kasuak jorratuko dira, inplikaturik dauden eragile guztien esku-hartzea beharrezkoa denean, konfidentziasuna errespetatzen dela bermatuta.

Sarean egiteko deitutako bileren xedea babesgabetasun egoeran edo babesik gabe geratzeko arriskuan dauden ikasleen datuak tratatzea dela kontuan hartuta, datuen tratamenduak Protokolo honen 4.1 apartatuan ezarritakoa beteko du.

Hala ere, bilera horietan aipatzen diren datuen titular diren ikasleak ez badaude babesgabezia egoeran, beren baimena eskatu beharko da datu horiek erabiltzeko.

## **Aldian behingo eta/edo beharrezko bilerak**

Sareko bilerak alde batera utzita, beste bilera batzuk antola daitezke ikasleekin harremanetan dauden erakunde pribatuekin (bulego pribatuak, zerbitzu mediko espezializatuak...), baldin eta beharrezkoa bada erakunde horiekin koordinaturik jardutea. Horrelakoetan, familiaren esanbidezko baimena izanen da.

## **Idatzizko dokumentazioa**

Informazioa trukatu behar izanez gero, idatziz dokumentatu beharko da, zein datu, zertarako eta norekin partekatzen diren adierazita.

## **Segurtasun neurriak**

Informazioa trukatzeko, plataforma digital seguruak eta zifratuak erabiliko dira eta saihestuko dira segurtasunik gabeko helbide elektronikoak.

Informazio trukaketak EDUCA plataformako helbide elektroniko korporatiboen bidez eginen dira, hau da, @educacion.navarra.es edo @navarra.es helbideak erabiliz (inoiz ez dira erabiliko helbide pertsonalak). Bestaldetik, mezuen gaian ez dira agertuko datu pertsonalak eta ez da aipatuko isilpeko informazioa denik. Mezuek iraungitze data izan behar dute, eta irakurri edo bidali ondoren ezabatuko dira. Gainera, igorlea informazioaren eskatzaile dela adierazi beharko da, eta mezuen hartzaileak benetan informazioa jaso behar duten horiek direla egiaztatu.

Informazioa bitarteko elektroniko bidez bidaltzen bada, partekatuko diren datuen kategoria kontuan hartuta, zifratze egokia hautatu beharko da. Adibidez, datu pertsonalak fitxategi konprimatuetan gorde eta pasahitz sendo batekin babestuko dira, pasahitza beste bide bat erabiliz jakinarazita.

Kalitatezko pasahitzak erabiliko dira, gutxieneko luzera dutenak (adibidez, 14 karaktereko pasaesaldiak), gogoratzeko errazak, asmatzeko zailak (ez erabili izenak, telefonoak, data bereziak, hiztegiatan agertzen diren hitz solteak...).

Datu pertsonalek pseudonimizatuta egon beharko dute, ahal den heinean. Adibidez, ikaslearen inzialak edo kode bat erabiliko dira.

Segurtasun neurriak ezartzeko moduari buruzko informazioa behar izanez gero, Hezkuntza Departamentuko segurtasuneko arduradunarengana jo daiteke.

## **6.- Datuen konfidentzialtasuna eta segurtasuna**

Tartean dauden langile guztiek jakin behar dute eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa dutela.

Datu pertsonalak babesteko segurtasun neurri egokiak ezarriko dira, informazio pertsonala eskuratzeko aukerak mugatuz.

## **7.- Protokoloaren ebaluazioa eta berrikuspena**

Protokolo hau urtean behin berrikusiko da, indarreko araudira egokitzen dela eta ikasleak babesteko balio duela bermatzeko. Beharrezkoa izanez gero, aldatu egingen da.

## **8.- Harremanak eta gatazkak konpontzea**

Ikastetxeko orientatzailea arduratuko da Protokolo hau behar bezala aplikatzeaz. Zuzendaritzako kideek eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak protokoloa ezagutuko dute, zuzen aplikatzen dela zainduko dute eta gatazka egoeretan bitarteko izanen dira.

## **9.- Zabalkundea**

Protokolo hau tartean dauden profesionalen artean zabaldu behar da, horren berri Hezkuntza Departamentuaren web orrian, NHBBZren web orrian eta orientatzaileen Orienta plataforman emanez, eta esku hartzean parte hartuko duten eragileei helaraziko zaie.